

Afektuzko familia-lotura 0-3 urteetan



Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia



ATXIKIMENDU KONTZEPTUA

- Ekintza egiaztatua: haurtxoak, 12 hilabete egin baino lehen, zaintzen duen pertsonarekin lotura bat sortzen du.
- Definizioa: *“Lotura afektibo bizia, iraunkorra, izaera berezikoa eta bi pertsonen artean elkarrekiko interakzioaren bitartez garatzen eta sendotzen dena, bere berehalako helburua hurbiltasuna bilatzea eta mantentzea delarik”.*

ATXIKIMENDUAREN FUNTZIOAK

■ Funtzioak:

- Biziraupena erdietsi
- Segurtasun emozionala eman

■ Beste funtzio osagarri batzuk:

- Haurrak bere garapenerako behar duen estimulazio kopurua eskaini eta erregulatu
- Esplorazioa ahalbidetu eta, ondorioz, ikaskuntza
- Osasun fisikoa eta mentala sustatu (atxikimendua egokia bada)
- Gizarte garapena bultzatu (segurtasuna sortzen baitu)
- Atsegina eskaini



ATXIKIMENDUAREN SEINALEAK

■ Lau seinale:

- Hurbiltasuna bilatzea
- Banantzeagatik kexua edo herstura
- Babes emozionala bilatzea
- Segurtasuna bilatzea



GURASOEN ETA SEME-ALABEN ARTEKO LOTURA PROZESUA

1. JAIO AURREKO FASEA



- a. Gorputz-hizkuntza (sabela laztantzen dute)
- b. Ahozko hizkuntza
- c. Jaio ez denarekin interakzioa (hitz egitea, abestea, musika entzutea...)
- d. Amaren eta fetuaren osasuna babesteko eta sustatzeko jokabideak (ez erretzea, dieta orekatua, azterketa medikoak...)
- e. Guraso bien aldetik ama haurdunaren itxura fisikoaren aldaketa onartzea (arropa erosi, apaindu...)
- f. Aurreratze jokabideak (sehaska prestatu...)
- g. Haurduntzari buruzko pertzepzio positiboak eta inplikazio maila
- h. Haurraren etorkizunaren, bere haziera eta hezkuntzaren eta euren aitatasun/amatasunaren inguruan amets egiteko gaitasuna

GURASOEN ETA SEME-ALABEN ARTEKO LOTURA

PROZESUA II

2. JAIO OSTEKO LEHEN FASEA

a. Ama eta seme-alabaren arteko kontaktu goiztiarra

3. EGOKITZE FASEA

a. Seme-alaba eta gurasoak elkar ezagutzen hasten dira eta portaerak sinkronizatzen

▪ Sinkronizazio prozesua oztopatu ahal duten gurasoen ezaugarriak:

- Pertsonalitate ezaugarriak (mesfidantza, herstura, auto-estimua baxua...)
- Guraso-eredu ez egokiak eduki dituzten gurasoak
- Desoreka larriak dituzten gurasoak (depresioa, psikosia...)
- Edozein arazo berezia duten gurasoak (drogomenpekotasuna, alkoholismoa...)



ATXIKIMENDU ZEHAZTUA (7-12 HILABETE)

▪ Ezaugarriak:

- Umeak tratu berezia ematen dio pertsona horri bereziki
- Bere hurbiltasuna nahiago du beste edozein pertsonarena baino
- Aktiboki bilatzen du bere lokomozio baliabideei esker
- Herstura erakusten du pertsona hori aldentzen denean
- Kontsolamendua behar badu, pertsona horrengan bilatzen du lehentasunez
- Etapa honetan, haurrak bere segurtasun oinarriak osatuko ditu ezagunak ez diren inguruak esploratzeko edo pertsona ezezagunekin edozein motako interakzioa onartzeko
- Haurra ama eta aita kontzeptua eraikitzen hasten da
- Gertatu daiteke haurra bi pertsona edo gehiagorekin binkulatzea
- Atxikimenduarekin batera, berarekin lotzen diren beste sistemak aktibatu edo agertzen dira (ezezagunari beldurra...)
- Adaptaziorako balio du

▪ Konklusioa: ezezagunari beldurra beti agertzen da haurrarentzat estresagarria bada egoera



ATXIKIMENDU ANITZAK ETA JARRAIKAKO INDEPENDIZAZIOA (13-16 HILABETE)

▪ Ezaugarriak:

- Atxikimendu ingurua handitzea
- Atxikimendu hierarkiaren ezarpena
- Autonomiaren handiagotzea bere aurrerapen linguistiko eta psikomotorei esker



LOTURAREN KALITATEA HAUTZAROAN

▪ ATXIKIMENDU MOTAK:

a. Atxikimendu iheskorra edo saihekorra:

- Portaera saihekor altua
- Kontaktuaren mantentze portaera baxua
- Hurbiltasun-bilaketa aldakorra
- Erresistentzia portaera baxua
- Bakarrik usterakoan negar egiten badute, ezezagunaren kontsolamendua ere onartzen dute

b. Atxikimendu segurua:

- Beraien gurasoengan erresistentzia-portaera (haserrea) edo saihe-portaera (ihesa) gutxi, edo bat ere ez, erakusten duten haurrek
- Hurbiltasuna bilatzeari eta kontaktua mantentzeari dagokionez aldakorrak dira
- Haurra banantzeagatik atsekabetua aurkitzen bada, gurasoek errez kontsolatu dezakete
- Ezezagunek noizean behin kontsolatu dezakete, baina gurasoek baino zailtasun gehiagoarekin

LOTURAREN KALITATEA HAUTZAROAN II

c. Atxikimendu iraunkor anbibalente ez-segurua:

- Gurasoekiko erresistentzia portaera altuagatik bereizten dira
- Saihesteko portaera baxua
- Gurasoen hurbiltasuna bilatzeko eta kontaktua mantentzeko portaera altua
- Banantzerakoan ez dute ezezagunaren kontsolamendua onartzen
- Bere gurasoen kontsolamendua bilatzen dute baina kontsolatzeko oso zailak dira

d. Atxikimendu desantolatua ez-segurua:

- Saihes- eta erresistentzia-portaerak nahasita
- Batzuetan nolabaiteko tratu txarrekin lotzen da
- Portaera desantolatua eta kaotikoa erakusten dute
- Ez dute loturarik ezartzen, haur autistak direla eman dezake

ATXIKIMENDU MOTA IRAGARTZEN DUTEN GURASOEN EZAUGARRIAK

a. Atxikimendu iheskorra edo sahieskorra :

- Haurrarenganako gutxiespen handia erakusten dute
- Gorputz-kontakturakoi erantzun negatiboak aurkezten dituzte
- Ez dute beraien emozioak adierazten eta erantzun afektiboak ez dituzte baloratzen
- Haurrarekin tratatu zorrotza izaten duten gurasoak dira

b. Atxikimendu segurua:

- Guraso sentikorrak
- Haurra onartzen dute
- Laguntzaileak
- Adikorrak eta hurbilak
- Beraien emozioak azaltzen dituzte
- Ez diote haurrari tratatu zorrotza ematen

ATXIKIMENDU MOTA IRAGARTZEN DUTEN GURASOEN EZAUGARRIAK II

C. Atxikimendu iraunkor anbibalente ez-segurua :

- Guraso odolgabeak
- Guraso aldakorrek, anbiguoak, batzutan alde batera usten dituzte eta beste batzutan estimulatu (haurrek ez dakite beraien beharrak noiz eta zergatik izango diren erantzunak).

D. Atxikimendu desantolatua ez-segurua :

- Tratu txarrei lotuta
- Gurasoak ez dira haurrentzako segurtasun oinarri

ONDORIOAK

▪ Atxikimendu egokia:

- Norbere ahalmenetan konfiantza errazten du, horrela norbere gaitasun sozial eta intelektualen pertzepzio hobeagoa lortzen da.
- Komunikazio-ahalmena, hizkuntza eta esplorazio portaera handiagotzen ditu
- Familia-harremanak errazten ditu, doikuntza sozio-emozionala hobetuz eta adaptazio soziala erraztuz

